

Acenorreko sindikatuek ez dute erregulazio espediente onartu

Enpresaren plangintza estrategikoa ezagutu eta negoziatzea eskatu dute

Acenorreko zuzendaritza bost lantegietako enpresa batzordekin bildu zen atzo, enplegu erregulaziorako espediente berria negoziatzeko. Sindikatuek atzera bota zuten espediente proposamena eta era berean plangintza estrategikoa negoziatzea exijitu zuten.

BILBO

Altzairu berezien enpresan enplegu erregulazio berria onartu aurretik «zuzendaritzak prestatu duen plangintza estrategikoa ezagutu eta negoziatu beharra» azpimarratu zuten ELA, CCOO eta UGT sindikatuak. Hau izan da beren esanetan espediente atzera botatzaren arrazoi nagusia. LAB sindikatuak «dokumentazio falta» salatu zuen, enpresa batzordek ez bait dute espedienteen arrazoiak ez eta bere ezaugarriak zeintzuk izango diren idatziz jaso. Gainera, «etorkizunean enpresaren iharduera produktibo eta industrial nolakoa izango den jakin gabe oso larritzat» jo dute LABeko iturriek espediente aurrera eramatea.

Acenorreko arduradunek, beren



Gasteizko Lan sailak onartuz gero, espediente urrian hasiko litzateke. OLAIDE

aldetik, onartzekotan aurtengo bigarren enplegu erregulazioa litzatekeena aurkeztea erabaki dute, «altzairu berezien sektoreak bizi duen krisialdi egoera azken hilabeteotan areagotzeaz gain, etorkizunerako aurrikuspen txarrak bait daude».

Gasteizko Gobernu Lan Sailak espediente onartzen badu, urriaren hasieran sartuko litzateke indarrean eta sei hilabete iraupena izango luke. Epe honetan espedienteak eragindako langileen soldaten % 90

bermatuko duela agindu du enpresako zuzendaritzak.

3.100 LANGILERI ERAGIN DIEZAIKIO

Acenorreko arduradunek aurkeztu nahi duten enplegu erregulazio espediente berri honek, pasa den apiriletik uztaile bitartean indarrean egon zenaren antzeko ezaugarriak ditu, «enpresak idatziz izan beharrean ahoz azaldu duenez» LABek ezagutarazi duenez. 3.500 lagilek osaturiko plan-

tilaren % 96ri eragingo lioke, hau da, 3.100 langile ingururi.

Espedienteak aurrera egiten badu, datorren apirilera arte izango da indarrean, abendua sei hilabeteetako iraupen teorikotik kanpo gelditzen bait da.

ELA sindikatuak zabaldu zuen prentsa agiriaren arabera, ELA, UGT eta CCOO sindikatuak metalgintza arloko idazkari nagusiek enplegu erregulazio espediente ez dute onartu, aurrekoarekin egin zuten bezala. Era berean, Juan Olaskoaga ELAko metalgintzako arduradunak, plangintza estrategikoaren aurkezpenak daraman ia hamar hilabeteetako atzerapena salatu zuen, eta Madrileko Industria ministeritzari langile eta enpresaren etorkizunari buruzko zalantzazko egoera sortaraztea leporatu zion.

5.929 MILIOIKO GALERAK AURTEN

Aurtengo lehen sei hilabeteetan 5.929 milioi pezetako galerak izan ditu Acenorrek. Emaiza hauekin hirukoiztu egin ditu iazko epe berean izandako 2.222 milioi pezetako emaitza negatiboak. Altzairu berezien enpresak % 27,2 gutxiago fakturatu du 1991ko lehen sei hilabeteetan.

Nazioarteko uren kontrolaz aritu dira Arrantza ministroa

LA TOJA

Munduko 40 estatutako Arrantza ministroak La Tojan bildu dira sektorearen egoera aztertzeko. Atzokoan nazioarteko urak kontrolatzeko neurri posibleak landu zituzten.

Estatu espainiarreko Arrantza ministroa de Pedro Solbesek azaldu zuenez, «Konferentzia arrantz errekurtsuen eskasiagatik kezkatutik agertu da».

200 milietatik kanpo dauden arrain 'stockak' zein neurriraino zatika daitezkeen aztertu zuten atzoko bilera itxian. Era berean, Solbes neurri hauek ezartzeak ekarriko lukeen

komplexutasun juridikoa azpimarratu zuen.

ELKARTE MIXTOAK BULTZATU

Madrileko Gobernuko Arrantza ministroak gaineratu zuenez, «garapen bidean dauden estatuek arrantz errekurtsuak dituzten arren, industria sendoak falta zaizkie». Arazo hau gairatzeko «elkarte mixtoen eredu» hobetuko dutela adierazi zuen.

Estatu ezberdinetako ordezkariak bat etorri ziren «arrantza produktuen merkatua liberatzeko bidean» jaritzaren beharraz, «horrela oreka handiagoa lortzeko».



Arrantza ministroek merkatua 'liberalizatu' beharra azpimarratu zuten.

Zuberoan Komunikazio Zentrua bultzatzen ari dira

M. ESTEBAN / MAULE

Datorren urterako, Mauleko Udalak Komunikazio Zentrua eraiki nahi du, batez ere Zuberoako enpresentzat, laborarientzat, turismoarentzat eta beste herritarrentzat. Mauleko Udalarekin batera, ADES (Zuberoako Ekonomi Garapenaren aldeko Elkarte), Baionako Merkatal Ganbara eta Zuberoako Industri Elkarteak xedearen partaide dira.

Komunikazio Zentruak lan mundua lagundu behar luke. Zuberoako enpresek tresna berriak erabiltzeko parada ona ukanen dute: telematika, informatika eta bideoa adibidez. Mauleko komunikazio Zentruan bideo gela eta tresnak, telemintzaldi gela, erakaskuntz gela eta telematikaren bankua izango dira.

Komunikazio Zentrua Zuberoako ekonomi sail guztiei irekita egongo da, hala nola industria, eskulagintza, nekazaritza, tu-

rismoa, tekniko irakaskuntza eta baita ere herri eta elkarteak.

MODERNIZAZIOA EZAGUTU BEHARRA

Xedearen ordezkariarentzat,

kenka txarrean dagoen Zuberoak «lan berriak eta modernizazioa ezagutu behar ditu» eta Komunikazio Zentruak Zuberoaren ekonomia hedatzeko bide izan behar luke. Gainera, Komunikazio Zentruak beste Mauleko Zerbitzu Zentru batekin lotuta egon behar du. Horrek erran nahi du Zuberoak bere txokotik ateratzeko nahia eta ekonomiaren koordinazioalortzeko asmoa duela.

Komunikazio Zentruan egongo den telematika zerbitzu berria guztientzat irekita egongo da eta Zuberoari buruzko datuak eskainiko dira, hala nola presentaketa, zerbitzu publikoak, tokietako animazioen egitaraua, Mauleko Turismo Bulegoaren eta opor agentzietarako berriak.

✓ Mauleko komunikazio Zentruan bideo gela eta tresnak, telemintzaldi gela, erakaskuntz gela eta telematikaren bankua izango dira.

La Casillako begirale ohiek bertako terraza hartu zuten

BILBO

Bilboko Udaleko Kirol Institutuko begirale ohi batzuek, La Casilla kiroldegiko terrazan itxialdi bat egin zuten atzo, aurrez aipaturiko Udal Institutuak, eta Guedan enpresak, kontratua berri ez dielako. Goizeko hamarretan hartu zuten terraza, eta ia bi orduz, gutxi gorabehera eguerdiko hamabiak arte, izan ziren bertan. Aipatzekoa da, inolako iskanbilarik ez zela gertatu.

Joan zen ekainera arte, lan kontratuaren jabe ziren langile hauek, baina berritzeko garaia iristean ezezkoa eman zuten enpresak. Horren arrazoiak, begirale batek azaldutakoaren arabera, euren lanpostua ziurtatzeko egin dituzten eskaerak izan daitezke. «Urte askotan, ziurtasunik gabe egon gara. Uda hastean amaitzen zen gure kontratua, baina nolabait, oporraldiaren ondoren bertutuko zigutena bermeaz. Hala ere, aurreko beste langileekin parekatzea eskatu dugunean, ez digute berri», argudiatu zuten.

Honez gain, kaleratua izan den langile talde honetako kideek, guztiak Guedan enpresak azpikontratuak, orain arte jasan izan duten desberdintasun egoera salatu zuten. Izan ere, Institutuak zuzenean kontratatutakoek egindako lan berdina egin, eta ordutegi bera bete arren, hauen soldataren erdia jasotzen zuten, eta ez zuten aintzinkotasun eta berziklatzeko eskubiderik.

Ondorioz, iragandako uztailetik aurrera protesta ekin-tza ugari egin dituzte Udal Kirol Institutuko begirale hauek, eta salaketak egin dituzte gizarte gaitako epaitegian.

Errioxako mahasbiltzea aurreratzea gomendatu dute

GASTEIZ

Araba eta Nafarroako Errioxa barneratzen dituen 'Rioja' jatorrizko izendapenaren Kontseilu Erregulatzailerak mahasbiltzea urriaren lehen astera aurreratzea gomendatu du 'zonalde goiztiarra' deritzonaren kasuan. Zonalde ertainean hurrengo astean hasia komenigarria dela gaineratu du.

Mahasbiltzearen aurreratzea abuztuan izan den tenperatura beroek eta euririk ez egiteak eragin dute. Zenbait tokitan irailaren azken astean mahatsa biltzen hasia proposatu dute Kontseiluko adituek.